

ZUBIRI'TAR IÑAKI, AGUR!

Atso, azillaren 10n. egunean, Sondika'ko eleizan ospatu gendun Zubiri'tar Iñaki Euskerazaleak Alkartearen lendarikariari agurra. Uste bagerik etorri jakun eriotza onek zurtz eginda itzi genduzan eta egin geuntsan agurra agur beroa eta samiña izan zan, bere etxekoakaz alkartuta.

LANKIDE ONA

Iñaki lankide ona izan dogu toki guztietan: isilla, ekin-tzaillea, berbea beteten ona. Illero, utsik egin bagerik ikusi dogu Bilbao'n Euskerazaleen batzarretan igoako ogeta amar-bat urtetan eta Deba'n naiz Bilbao'n Euskerazaintzaren batzarretan beste ogei ta bost-bat urtetan.

Ez da gauza erreza izango berak itzi dauskun utsunea betetea!

IDAZLE UGARIA

Beste lan askotara sartuta egon arren, Iñaki'k atera dau astia idazteko. Nik ez dakit zenbat liburu diran berak idatzia, batez be elebarriak. Guztiak irakurri dodaz argitaratu-aurrean eta sarritan itz-aurrea be egin dautset.

Elebarriak oso onak dira, irudimen aundidunak, aria ondo daroenak, tartekotasun edo "suspense" aundia sortzen dabenak, errian ondo oiñarrituak.

Olerkigintzan eta izlaritzan be egin dau lan.

GUDALBURUA

Iñaki'ren bizitzea luzea izan da eta gauza askotara sartu bear izan dau, gudaketara be bai. Otxandiano guda-

taldean ekin eban "teniente" lez eta orren ondorena espetxeko urteak izan ziran.

JAURLARITZAN

Bere zintzotasuna ikusita, lenengo jaurlaritzak arduratua aundiak emon eutsozan eta Jaurlaritza erbestera izan zanean, berau izan zan emen barruan eukan ordezkaria.

Ez dau inoz alde batera itzi, ez gudan eta ez bakean, ez isillean eta ez agirian, errigintza edo politika-lana, azkenaldian inogaz asarrerik izan bagerik EA'ren barruan. Orregaitik ikusi al izan genduzan illetan alderdi orretako ordezkari gurenak.

ELEIZKIDE

Eta, amaitzeko, ezin aitzuta itzi gure Iñaki'ren eleiz-zaletasun zintzoa, gau-gurtzaille ezaguna izate-raiño, eta bai Laukiniz'en eta bai, azken illetan Sondika'n askotariko laguntza apala eskintzen izan daua.

Amaitzeko, emen esan doguzan ainbat gauza ez dira naikoa Iñaki'ren nortasuna agertzeko, bere eginak askoz zabalagoak eta sakonagoak diralako, baiña ezin amaitu gure gazte dei bat egin barik: Sartu daitezela olako lan-arloetara, erriak ori bear daualako.

Olazar'tar Martin'ek



Iñaki de Zubiri Sánchez

(Goian bego)

Funeral

HOY,
lunes, 10

7.00
de la tarde

Parroquia de San Juan Bautista, SONDIKA

Falleció en Sondika el día 8 de noviembre de 2003, a los 90 años de edad, habiendo recibido los Santos Sacramentos y la Bendición Apostólica de Su Santidad

Ingeniero Industrial
Adorador Nocturno Veterano Constante
Gudari del Batallón Otxandiano
Teniente del Estado Mayor del Ejército de Euzkadi

Delegado en el interior del Gobierno Vasco en el exilio
Presidente de Euskerazaleak
Académico de Euskerazaintza

NOTA: El domingo día 16, a las DOCE del mediodía, se celebrará la misa de salida en la iglesia parroquial de San Martín, de LAUKINIZ

“Euskerazaleak” alkartea'k samintasunez iragartzen dautse “Zer” aldizkari onen irakurle guztiai Iñaki Zubiri lendarikariaren eriotza, eta beronen alde otoi-tza eskatzen dautse.

Olazar'tar Martin Lendarikari-ordeak